


*Urnietako Udala**Ayuntamiento de Urnieta**Suzkoa*

**2007KO AZAROAREN 14KO UDALBATZARRAREN AKTA  
ACTA DEL PLENO DEL 14 DE NOVIEMBRE DE 2007**

**Akta zenbakia:** 13/2007  
**Bilera data:** 2007-11-14  
**Bilera mota:** Ezohiko osoko bilkura  
**Deialdia:** Lehenengoa  
**Ordua:** 19:00- 21:15  
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

**Acta nº:** 13/2007  
**Fecha:** 14-11-2007  
**Tipo de reunión:** Pleno extraordinario  
**Convocatoria:** Primera  
**Hora:** 19:00 – 21:15  
**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento

**Bertaratutakoak:**  
**Alkatea:** Miguel Izaguirre Recondo

**Reunidos:**  
**Alcalde:** Miguel Izaguirre Recondo

**Zinegotziak:**  
Miren Quintas Etxeberria  
Fátima Ormaetxea Txoperena  
Mertxe Zapiain Intxausti  
Hermenegildo Gonzalez Moran  
Consuelo Frutos Gonzalez  
Jose Guirado Novo  
Nerea Sayavera Urchueguia  
Maria Isabel Vaquero Montero  
Miren Martiarena Barkaiztegui  
Gaspar Esnaola Agesta  
Juan Ignacio Mendizabal Eguia  
Gotzone Astiasaran de Miguel

**Concejales:**  
Miren Quintas Etxeberria  
Fátima Ormaetxea Txoperena  
Mertxe Zapiain Intxausti  
Hermenegildo González Morán  
Consuelo Frutos González  
José Guirado Novo  
Nerea Sayavera Urchueguía  
Maria Isabel Vaquero Montero  
Miren Martiarena Barkaiztegui  
Gaspar Esnaola Agesta  
Juan Ignacio Mendizábal Eguia  
Gotzone Astiasaran de Miguel

**Bitarteko idazkaria:**  
Nagore Alkorta Elorza

**Secretaria interina:**  
Nagore Alkorta Elorza

**Bitarteko Kontu-hartzailea:**  
Aitziber Zurutuza Arza

**Interventora interina:**  
Aitziber Zurutuza Arza

**Aztergaiak:****Orden del día:**

1.- 2007ko irailaren 26ko akta onestea, bidezkoa bada.

1.- Aprobación, si procede, del acta de 26 de septiembre de 2007

2.- Gaspar Esnaola Agesta jaunaren zinegotzi kargua hartzea

2.- Toma de posesión del cargo de concejal de D.Gaspar Esnaola Agesta.



## 2007KO AZAROAREN 14KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 14 DE NOVIEMBRE DE 2007

3.- Ordenantza Fiskalen aldaketak

3.- Modificación de las Ordenanza Fiscales

4.- Osakidetzari lokalak lagatzea

4.- Cesión de locales a Osakidetza

5.- Informazio publikorako beste epe bat irekitzea hasieran onartutako Hiri Antolamendurako Plan Nagusiko dokumentuari buruzko alegazioak aurkezteko

5.- Apertura de nuevo plazo de información pública para la presentación de alegaciones al documento de Plan General de Ordenación urbana aprobado con carácter inicial.

6.- Eusko Alderdi Jeltzaleak San Markoseko Mankomunitatearen inguruan aurkeztu duen mozioa

6.- Moción presentada por el partido nacionalista vasco sobre la Mancomunidad de San Marcos.

### 1.- 2007ko irailaren 26ko akta onartzea, zilegi bada.

### 1.- Aprobación, si procede, del acta de 26 de septiembre de 2007.

Alkateak adierazi du 2007ko irailaren 26ko akta onartu behar dela. Horren gainean inork ezer esatekorik ba ote duen galdetu du gero.

El alcalde ha presentado este punto señalando que hay que aprobar el acta de 26 de septiembre de 2007; asimismo, ha preguntado si alguien tiene algo que comentar a este respecto.

PSOeko bozeramaile Hermenegildo Gonzalezek hartu du hitza, eta adierazi du uste duela aktan inkongruentzia bat dagoela; izan ere, hor ageri denez, 13 zinegotzik parte hartu zuten, eta botazio batzuetan 12 agertzen dira. Nagore Alkorta idazkariak erantzun dio esanez 13 zinegotzi joan zirela baina bat bilera hasi eta gero sartu zela, eta horregatik ez dela agertzen botazioaren batean.

Ha tomado la palabra el portavoz del PSOE Hermenegildo González para señalar que cree que hay una incongruencia en el acta ya que siendo 13 los asistentes detallados en algunas de las votaciones aparecen 12. Le responde la secretaria Nagore Alkorta señalando que se han computado 13 asistencias pero que uno de los asistentes entró en la reunión una vez iniciada la misma, razón por el cual no aparece en alguna de las votaciones.

Adierazitako aldaketa horiek onartu ostean, udalbatzak aho batez onartu du 2007ko irailaren 26an egindako osoko bilkurako akta.


El Pleno ha aprobado de forma unánime el acta de la sesión plenaria celebrada el día 26 de septiembre de 2007.

### 2.- Gaspar Esnaola Agesta jaunaren zinegotzi kargu hartzea

### 2.- Toma de posesión del cargo de concejal de D.Gaspar Esnaola Agesta.

Idazkariak azaldu du aurreko zinegotziak kargua utzi eta gero egin beharreko tramite guztiak egin direla eta kredentzialak ere heldu direla, eta, honenbestez, Gaspar Esnaola Agesta jaunak kargua hartuko duela.

La secretaria explica que tras el cese de cargo del anterior concejal y tras cumplir con todos los trámites, ya han recibido las credenciales; por tanto, se procederá a la toma de posesión del cargo de don Gaspar Esnaola Agesta.



## 2007KO AZAROAREN 14KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 14 DE NOVIEMBRE DE 2007

Izendapen agiriak zuzenak direla ikusita eta zinegotziek kargua hartzeko legeak ezartzen dituen izapideak bete ondoren, Gaspar Esnaola Agesta jaunak zinegotzi kargua hartu du.

Izendapen hori kontuan hartuta, EAJko bozeramaile Maribel Vaquerok informazio batzordeak, Behemendikoa eta Kulturnieta eta Urnieta Eraiki udal sozietateak nola gelditu diren adierazi du. EAJko bozeramaile Maribel Vaquerok proposatutako aldaketak honako hauek dira:

**Hirigintza, Etxebizitza eta Landa Garapenerako informazio batzordea:** Gaspar Esnaola izango da horko titularra, Florentino Ugalderen ordez.

**Ogasun eta Ondarearen informazio batzordea:** Miren Martiarena izango da ordezkoa, Florentino Ugalderen ordez.

**Kontratazio eta Langileriaren informazio batzordea:** Gaspar Esnaola izango da titularra, Florentino Ugalderen ordez.

**Kultura eta Kiroleko informazio batzordea:** Gaspar Esnaola izango da ordezkoa, Miren Martiarenaren ordez.

**Kontuen Batzorde Berezia:** Miren Martiarena izango da ordezkoa, Maribel Vaqueroren tokian.

### **Udal sozietateak:**

- KULTURNIETA: EAJko bozeramaile Maribel Vaquerok dimisioa eman du Kulturnieta SA udal sozietateko kide gisa, eta Gaspar Esnaola proposatu du ordezkoko gisa.
- URNIETA ERAIKI: Urnieta Eraiki SA udal sozietateari dagokionez, Gaspar Esnaolak ordezkotuko du Florentino

Visto que los documentos de nombramiento son correctos y tras cumplir todos los trámites que ordena la Ley para la toma de posesión de cargo de concejales, Gaspar Esnaola Agesta toma el cargo de concejal.

Teniendo en cuenta el nuevo nombramiento, la portavoz del PNV Maribel Vaquero señala la nueva composición de las Comisiones Informativas así como de la de Behemendi y las sociedades municipales Kulturnieta y Urnieta Eraiki. Los cambios propuestos por la portavoz del PNV Maribel Vaquero son los siguientes:

**Comisión Informativa de Urbanismo, Vivienda y Desarrollo Rural:** Gaspar Esnaola será el titular de la misma en sustitución de Florentino Ugalde.

**Comisión Informativa de Hacienda y Patrimonio:** A su vez, Miren Martiarena pasará a ser la suplente de la misma en sustitución de Florentino Ugalde.

**Comisión Informativa de Contratación y Personal:** Gaspar Esnaola será el titular de la misma en sustitución de Florentino Ugalde.


**Comisión Informativa de Cultura y deportes:** Gaspar Esnaola pasará a ser el suplente de la misma en sustitución de Miren Martiarena.

**Comisión Especial de Cuentas:** Miren Martiarena pasará a ser la suplente de la misma en sustitución de Maribel Vaquero.

### **Sociedades municipales:**

- KULTURNIETA: La portavoz del PNV Maribel Vaquero presenta su dimisión como miembro de la sociedad Municipal Kulturnieta S.A proponiendo a Gaspar Esnaola para que le sustituya.
- URNIETA ERAIKI: En cuanto a la sociedad municipal Urnieta Eraiki S.A será Gaspar Esnaola el que le sustituirá





**2007KO AZAROAREN 14KO UDALBATZARRAREN AKTA  
ACTA DEL PLENO DEL 14 DE NOVIEMBRE DE 2007**

Ugalde.

a Florentino Ugalde.

**Behemendi (Donostialdeko eta Bidasoako Mendiko Nekazari Elkartea)**

Gaspar Esnaola izango da titularra Florentino Ugalderen ordean. Miren Martiarena proposatu da ordeko gisa.

**Behemendi (Asociación Agraria de Monte de Donostialdea-Bidasoa)**

Gaspar Esnaola será el titular de la misma en sustitución de Florentino Ugalde. Se propone a Miren Martiarena como suplente de la misma.

**3.- Ordenantza Fiskalen aldaketak**

Miguel Izaguirre alkateak hartu du hitza, eta Ordenantza Fiskalen aldaketak azaldu ditu. Zerga eta hobarien nahiz tasen proposamenak azaldu ditu.

PSOEko bozeramaile Hermenegildo Gonzalezek hartu du hitza, eta adierazi du blokeka bozkatuko dutela.

Miguel Izaguirre alkateak erantzun dio esanez komenigarriena banaka bozkatzea dela, eta ez blokeka.

ANVko bozeramaile Iñaki Mendizabalek hartu du hitza, eta adierazi du udalbatzar hau baino lehen egin diren informazio batzordeetan gobernu taldeak ez duela adierazi zein politika egiteko asmoa duen zergei dagokienez, eta hori gabe ez dagoela horren gaineko botazioa egiterik. Adierazi du irizpide batzuk izan behar direla proposatutako igoera horiekin zerbitzuen kostuaren zein portzentaje estali nahi den jakiteko.

EAJko bozeramaile Maribel Vaquero hartu du hitza, eta adierazi du beharrezkoa dela botazioa egin aurretik ordenantza fiskalak bozkatzea eta erabaki bat hartzea KPIa kontatzeko erreferentzia gisa zein aldi hartu behar den kontuan, ordenantza fiskaletan agertzen diren tasak, zergak eta prezio publikoak aplikatzeko.

Bestalde, adierazi du Buruntzaldeko urtetik urterako KPIari dagokienez hurrengo urteetan

**3.- Modificación de las Ordenanza Fiscales**

Toma la palabra el Alcalde Miguel Izaguirre que pasa a exponer las modificaciones de las Ordenanzas Fiscales. Expone las distintas propuestas de los impuestos y sus bonificaciones así como de las tasas.

Toma la palabra el portavoz del PSOE Hermenegildo González para señalar que ellos van a votar en bloque.

Le contesta el alcalde Miguel Izaguirre señalando que es más conveniente que se vote de modo individualizado que en bloque.

Toma la palabra el portavoz de ANV Iñaki Mendizabal para señalar que antes de llegar a este Pleno y en las Comisiones Informativas que se han celebrado previamente el equipo de gobierno no ha señalado la política tributaria que pretenden seguir y que sin el mismo no cabe votación alguna al respecto. Señala que se deben de tener unos criterios en relación al porcentaje del coste de los servicios que se pretende cubrir con las subidas propuestas.

Toma la palabra la portavoz del PNV Maribel Vaquero para señalar que es necesario, antes de proceder a la votación con el tema de las ordenanzas fiscales, tomar una decisión sobre el periodo que ha de tenerse como referencia para el cómputo del IPC de cara a su aplicación sobre las tasas, impuestos y precios públicos englobados en las ordenanzas fiscales.

Señala así mismo que la fecha que se tendrá en cuenta para los años sucesivos en relación al



## 2007KO AZAROAREN 14KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 14 DE NOVIEMBRE DE 2007

kontuan hartuko den eguna maiatzaren 31 izango dela, bere taldeak irailaren 30eko Ogasun Batzordean hala proposatu zuela eta beste guztiak alde agertu zirela. Nabarmendu du batzordean erabaki ere zutela udalbatzarreko gai zerrendan botazioa egitea sartuko zutela puntu honetako tasen ordenantza atera baino lehen, eta hori egitea eskatzen dutela.

IPC interanual, en Buruntzaldea es el 31 de mayo, y que su grupo propuso en la Comisión de Hacienda que fuera el 30 de septiembre, y que todos se mostraron a favor. Recalca que en la Comisión también se acordó introducir en el orden del día del pleno la votación, antes de la ordenanza de tasas, de este punto y es lo que solicitan que se haga.

### • Premiazko jotzea

Miguel Izaguirre alkateak hartu du hitza, eta adierazi du gai zerrendan ez dutela sartu KPIa kontatzeko erreferentzia gisa zein aldi hartu behar den kontuan ordenantza fiskaletan agertzen diren tasak, zergak eta prezio publikoak aplikatzeko.

Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren arabera, gai zerrendan gai bat sartu eta horri buruzko akordioa baliozkoa izan dadin beharrezkoa da premiazko jotzea.

Ez da eztabaidarik izan, eta alkateak botazioa egitea proposatu du. Honako emaitza hau izan du:

Alde: 13 (UDA 4, PSE-EE/PSOE 4, EAJ-PNV 3, ANV/EAE 2)

Kontra: 0

Abstentzioak: 0

Botazioaren ostean, Udalbatzak aho batez hartu du honako

### ▪ Pronunciamiento sobre la urgencia

Toma la palabra el alcalde Miguel Izaguirre señalando que el asunto relativo al periodo que ha de tenerse como referencia para el cómputo del IPC de cara a su aplicación sobre las tasas, impuestos y precios públicos englobados en las ordenanzas fiscales no se ha incluido en el orden del día.

Según lo señalado en el reglamento de organización, funcionamiento y régimen jurídico de las entidades locales, es necesario, para la inclusión de un asunto en el orden del día y así sea válido el acuerdo que se adopte la previa declaración de urgencia.


No se ha suscitado debate y por lo tanto, el alcalde ha propuesto someterlo a votación, con el siguiente resultado:

A favor: 13 (UDA 4, PSE-EE/PSOE 4, EAJ-PNV 3, ANV/EAE 2).

En contra: 0

Abstenciones: 0

Tras la votación, el Pleno por unanimidad de los asistentes ha adoptado el siguiente



## 2007KO AZAROAREN 14KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 14 DE NOVIEMBRE DE 2007

### AKORDIOA

**Lehenengoa.-** Ordenantza fiskalei aplikatuko zaien KPIa kalkulatzeko zein aldi hartuko den kontuan gai zerrendan sar dadila onartzea.

Gai zerrendan sartzea onartu ostean, alkateak botazioa egitea proposatu du, eta honako emaitza hau izan du:

Alde: 13 (UDA 4, PSE-EE/PSOE 4, EAJ-PNV 3, ANV/EAE 2)

Kontra: 0

Abstentzioak: 0

Botazioaren ostean, Udalbatzak aho batez hartu du honako

### AKORDIOA

**Lehenengoa eta bakarra.-** Urtetik urterako KPIa irailaren 30ekoa hartzea, eta ordenantza fiskalak horren arabera aldatzea.

Gero, PSE-EEko zinegotzi Hermenegildo Gonzalez Moranek hartu du hitza, eta honako testu hau irakurri du: "2008ko ordenantza fiskalen inguruan erabakia hartzeko orduan, funtsezkoak diren bi kontu aztertu ditugu:

**Lehenengoa:** Alderdi teknikoa. Horri dagokionez ez dugu inolako eragozpenik; areago, ontzat jotzen dugu alde teknikoan egindako lana.

**Bigarrena:** Alderdi teknikoa. Horrekin erabat kontra gaude, hainbat arrazoiengatik:

Ordenantzak berandu aurkeztu dira, oso berandu, eta presarekin, jendaurrean erakutsi

### ACUERDO

**Primero.-** Aprobar la inclusión en el orden del día del periodo que se tendrá en cuenta a la hora de calcular el IPC aplicable a las ordenanzas fiscales.

Una vez aprobada la inclusión del asunto en el orden del día, el alcalde ha propuesto someterlo a votación, con el siguiente resultado:

A favor: 13 (UDA 4, PSE-EE/PSOE 4, EAJ-PNV 3, ANV/EAE 2).

En contra: 0

Abstenciones: 0

Tras la votación, el Pleno por unanimidad de los asistentes ha adoptado el siguiente

### ACUERDO

**Primero y único.-** Aprobar la utilización como referencia el IPC interanual existente a fecha de 30 de septiembre, para las posteriores modificaciones de las ordenanzas fiscales.

A continuación, toma la palabra Hermenegildo González Morán, concejal del PSE-EE, que pasa a dar lectura al siguiente texto: "Hemos analizado dos cuestiones fundamentales a la hora de tomar una decisión en cuanto a las Ordenanzas fiscales para el ejercicio 2008:

**Primera:** La parte técnica, a la cual no vamos a poner ninguna pega al respecto, es más, valoramos positivamente la labor realizada por la parte técnica.

**La segunda:** Es la parte Política, ahí estamos totalmente en contra, por diferentes razones por diferentes motivos:

Se presentan las Ordenanzas tarde, muy tarde, y con prisas, con el tiempo justo para ser



*Urnietako Udala**Uguzkoa**Ayuntamiento de Urnieta*

## 2007KO AZAROAREN 14KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 14 DE NOVIEMBRE DE 2007

eta 2008ko urtarrilaren leian onartu ahal izateko denbora justuarekin

Ogasuneko bi informazio batzordetara deitu gaituzte, eta batzorde bakoitzean proposamen bat izan da. Beraz, irizpidea falta da ordenantza fiskalen gaineko ideia garbi bat izateko.

Zaborrak %15 garestitzea proposatu da. San Markoseko Mankomunitateko aurrekontuak onartu gabe eta garestitzeko gomendiorik ere egon gabe, esate baterako Añarbeko Urek egin duten bezala.

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergak %0,91 igo dira, beste batzuetan %9,05 ere bai. Zergak igotzeko irizpidea denak parekatzea izan da; izan ere, batzordeetan esan izan denez, alde handiak daude. Zergatik egin da hori zerga honekin, eta ez beste zerga eta tasekin?

Gure ustez, tasa batzuk kezkatzekoak dira. Esate baterako, autotaxi eta alokairuko gainerako ibilgailuen lizentzia eta administrazio baimenak errealitatera egokitu behar dira. Beste adibide bat hirigintzako baimenak dira. Ezin da ulertu okindegi bat jarri nahi duen pertsona batek eta 200 etxebizitza eraiki behar dituen kontratista batek zenbateko bera ordaindu behar izatea. Hori ez da zuzena.

Autotaxi eta alokairuko ibilgailuetarako lizentzia eta baimenak %12,8 garestitzea proposatu da. Baina, bien bitartean, taxi lizentzia batzuk ez dira ateratzen lehiaketa publikora. Udaleko Talde Sozialistak eginga du eskaera hori, baina gaur egun oraindik ez dugu jaso Alkatetzaren erantzunik. Beraz, ez dauka zentzurik tasa %12,8 handitzea gero zerbitzua ematen ez bada.

Kirol instalazioak erabiltzeagatik tasei dagokienez, ez gatoz bat hiruhileko eta seiuhilekoko abonamenduak garestitzearekin.

sometidas a exposición pública y que puedan ser aprobadas antes del 1 enero de 2008.

Se nos ha convocado a dos Comisiones informativas de Hacienda, y en cada Comisión, propuestas distintas, por lo que falta criterio a la hora de tener una idea clara sobre las Ordenanzas Fiscales.

Se plantea la subida de las basuras en un 15%, sin ni siquiera haberse aprobado los presupuestos en la Mancomunidad de San Marcos, ni haber una recomendación de la subida, como por ejemplo a ocurrido con Aguas del Añarbe.

Los impuestos sobre vehículos de tracción mecánica se incrementan desde 0,91% en algunos vehículos, hasta el 9,05% en otros. El criterio seguido para estos aumentos ha sido intentar equipararlos, ya que según se ha comentado en las comisiones existe un desfase importante. ¿Por qué se ha hecho con este impuesto, y no con el resto de impuestos y tasas? Tenemos tasas que nos parecen preocupantes, por ejemplo: Las licencias y autorizaciones administrativas de auto-taxis y demás vehículos de alquiler, deben ser adaptadas a la realidad. Otro ejemplo, las licencias urbanísticas, no se entiende que tenga que abonar la misma cantidad por una licencia urbanística una persona que quiere montar una panadería a un contratista que construye 200 viviendas, esto no es de justicia.

Se propone la subida del 12,8% en licencias y autorizaciones a los auto-taxis y vehículos de alquiler. Cuando resulta que hay licencias de taxis que no se sacan a concurso público. Petición que hemos realizado el Grupo Municipal Socialista y que al día de hoy no hemos tenido respuesta por parte de Alcaldía. Por lo tanto no tiene sentido subir una tasa el 12,8% si luego resulta que no das el servicio.

En cuanto a las tasas por utilización de las instalaciones deportivas, discrepamos en la subida que corresponde a los abonos



## 2007KO AZAROAREN 14KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 14 DE NOVIEMBRE DE 2007

Urteko abonamenduak bultzatzea da hori proposatzeko erabili den argudioa. Garbi dago urteko abonamenduak kiroldegia instalazio osatu batzuekin hornituta bultzatzen direla.

Bestalde, beste tasa bat sortzea proposatu da, zehazki aldi baterako ostatatze zerbitzuarekin lotutakoa, eta ez da onartu ere egin dagokion udal ordenantza/araudia. Aurreikuspen falta da hori.

Zinez kezkatzen gaitu gastuaren %10 ere estaltzen ez duten tasak izateak. Jakina, badakigu zerbitzu batzuk defizitarioak direla. batez ere gizarte gaiekin lotutakoak, baina beste batzuetan ezin da ulertu desoreka hori.

Azaroaren 8an, ordenantza fiskalak igotzeko proposamena agertu zen prentsan; halaberrez, bigarren Ogasun Batzordea egin baino egun bat lehenago, non haiei buruz eztabaidatu eta adostu behar baitzen.

Jakina, orain ez dago erreakziorako astirik, berandu aurkeztu dira, eta irizpiderik gabe. Gure ustez, ordenantza fiskalei askoz lehenago heldu behar zitzaie, sakon berrikusita eta erabat berrituta, ordenantza fiskalak errealitate sozial eta instituzionalera egokitzeko.

Horrenbestez, Udaleko Talde Sozialistaren botoa KONTRAKOA da.

Hermenegildo Gonzalezek nabarmendu du nola bozkatuko duten erabaki behar dela.

ANVko bozeramaile Iñaki Mendizabalek hartu du hitza, eta adierazi du gobernu taldeak ez duela bere proposamena azaldu.

Gero, EAJko bozeramaile Maribel Vaquerok

trimestrales y semestrales, el argumento de la propuesta es incentivar los abonos anuales. Esta claro que los abonos anuales se incentivan dotando al polideportivo de unas instalaciones completas.

Se nos propone también la creación de una tasa, concretamente la tasa relacionada con el "servicio de alojamiento temporal", sin ni siquiera haberse aprobado la correspondiente Ordenanza/Reglamento Municipal. Esto es falta de previsión.

Nos preocupa profundamente que tengamos tasas en las cuales los ingresos no llegan a cubrir ni el 10% del gasto. Evidentemente sabemos que hay servicios que son deficitarios sobre todo los referentes a temas sociales, ahora bien, hay otros que no se entiende su desfase.

El día 8 de Noviembre aparece en prensa la propuesta de las distintas subidas de las Ordenanzas Fiscales, que casualidad, un día antes de la segunda Comisión de Hacienda, cuando se presupone que se tenían que debatir y consensuar.

Claro, pero ahora no hay tiempo de reacción, se ha presentado tarde y sin criterio. A nuestro entender, las Ordenanzas Fiscales se tenían que haber acometido mucho antes con una revisión profunda y renovación total de las mismas, para adaptar las Ordenanzas fiscales a la realidad social e institucional.

Por lo tanto el voto del Grupo Municipal Socialista es EN CONTRA.

Hermenegildo González recalca que hay que decidir el sistema de votación que se seguirá.

Toma el portavoz de ANV Iñaki Mendizabal señalando que el equipo de gobierno no ha "defendido" su propuesta.

A continuación toma la palabra la portavoz del PNV Maribel Vaquero señalando que esto es un




*Urnietako Udala**Sipuzkoa**Ayuntamiento de Urnieta*

## 2007KO AZAROAREN 14KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 14 DE NOVIEMBRE DE 2007

hartu du hitza eta esan du hau desastre hutsa desastre sin precedentes. Seguidamente pasa a dela, inoiz izan ez den bezalakoa. Gero, exponer su postura en relación a las ordenanzas ordenantza fiskalen inguruan duten jarrera fiscales: azaldu du:

- Ados daude proposatutako hobariekin; izan ere, gehienak aurreko agintalditik datoz, familia ugarietzako hobariak kasu.
- Ados daude urtetik urterako KPlaren igoera proposatzen duten puntuekin.
- Ez daude ados Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergarekin; izan ere, aurreko agintaldian, zerga horren azterlan xehe bat egin zen, eta kontuan hartu zen luxuaren arabera ibilgailuen koefizientea ezartzeko orduan.
- Ados daude Añarberen proposamenarekin (ur tasa).
- Ez daude ados San Markoseko Mankomunitatearen proposamenarekin (zaborra), ez baitakite zein den San Markosen aurrekontua. Ez daukate daturik tasa horren igoera planteatzeko.
- Ados daude Buruntzaldeko tasekin, betiere Buruntzaldean planteatutako berberak badira. Buruntzaldeko estatutuetan prezioak berberak izango direla adierazten da, eta beraiek kide izaten eta eskualdeko instalazioak erabiltzen jarraitu nahi dutenez, beharrezkoa da tasa berbera aplikatzea.
- Ez daude ados aldi batez ostatatzeko etxebizitzaren tasarekin. Etxea teilatutik egiten hasi dira. Ez dago azterlanik gisa horretako ostatatzeen beharren inguruan. Ez da ezagutzen tasaren oinarria ez eta irizpideak eta gisa honetako ostatatzeen beharra arautuko duen ordenantza
- De acuerdo con las bonificaciones planteadas, ya que la mayoría vienen de la legislatura anterior como es el caso de las bonificaciones por familia numerosa
- de acuerdo en los puntos donde se propone la subida del ipc interanual.
- en desacuerdo con el impuesto sobre vehículos de tracción mecánica, ya que en la anterior legislatura se hizo un estudio detallado de este impuesto y se tuvo en cuenta a la hora de marcar el coeficiente los vehículos de menor a mayor lujo.
- de acuerdo con la propuesta de Añarbe ( tasa de aguas)
- en desacuerdo con la propuesta de San Marcos (basura). No saben cual es el presupuesto de San Marcos. No tienen datos para plantear una subida sobre esta tasa.
- de acuerdo con las tasas de Buruntzaldea, siempre y cuando sea igual al planteado en Buruntzaldea. Los estatutos de Buruntzaldea habla de precios iguales y dado que ello quieren seguir siendo miembros y utilizar las instalaciones de la comarca es necesario aplicar la misma tasa.
- en desacuerdo con la tasa de las viviendas de alojamiento temporal. Se ha empezado a hacer la casa por el tejado. No hay un estudio de necesidades para este tipo de alojamientos, no se indica cuáles van a ser estas viviendas, no se conoce en base a qué se establece esta tasa ni los criterios y la ordenanza que regule la necesidad de este tipo de alojamiento.

Adierazi du ez daukatela eragozpenik tasak banan-banan bozkatzeko, baina ulertzen dutela ANVren eta PSOEn jarrera, blokean bozkatzekoa alegia. Badu logika, batzordeetan izan den adostasun eta informazio falta dela eta. Señala que no tienen inconveniente en votar una por una las tasas, pero entienden que la postura de ANV y PSOE, de votar en bloque, tienen su logica por la falta de acuerdo e informacion que ha habido en las comisiones.



## 2007KO AZAROAREN 14KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 14 DE NOVIEMBRE DE 2007

Alkateak udalbatzarra 10 minutuz etetea erabaki du.

El Alcalde ha acordado un receso en la celebración del Pleno por un periodo de 10 minutos.

Etenaldiaren ostean, Miguel Izaguirre alkateak gai hau beste baterako uztea proposatu du.

Tras el parón el alcalde Miguel Izaguirre ha propuesto dejar el punto sobre la mesa.

### 4.- Osakidetzari lokalak uztea

Miguel Izaguirre alkateak hartu du hitza, eta adierazi du Urnietako Udalak lokal batzuk utziko dizkiola Osakidetzari, 1.379,52 metro guztira. Osasun etxea beheko eta lehenengo solairuetan jarriko da, eta Osakidetza arduratuko da zentro hori kudeatzeaz.

### 4.- Cesión de locales a Osakidetza

Toma la palabra el Alcalde Miguel Izaguirre para señalar que el Ayuntamiento de Urnieta va a ceder unos locales a Osakidetza con una superficie de 1.379,52 metros cuadrados. El centro de salud de ubicará en la planta baja y primera siendo Osakidetza la encargada de gestionar dicho centro.

PSOeko bozeramaile Hermenegildo Gonzalezek hartu du hitza, eta adierazi du ez dutela behar besteko daturik gisa horretako akordioak hartzeko. Adierazi du ados daudela lokalak uztearekin, baina ez gobernu taldearen planteamendurekin, ez baitute informaziorik. Hermenegildok nabarmendu du azaroaren 19an egindako Ogasun eta Ondareko Informazio Batzordean alkateak hitzeman zuela izango zituztela utziko diren lokalen planoak eta eremu zehaztua. eta hori ez duela bete.

Toma la palabra el portavoz del PSOE Hermenegildo González para señalar que no disponen de los datos suficientes para la adopción de este tipo de acuerdos. Señala que ellos sí están de acuerdo con la cesión pero no en el planteamiento del equipo de gobierno al carecer de información. Recalca Hermenegildo que en la Comisión Informativa de Hacienda y Patrimonio celebrada a fecha 9 de noviembre el alcalde les prometió de que dispondrían de los planos así como de la superficie detallada de los locales a cederse cuestión que no se ha cumplido.

